

Despisteen bidaiari gorazarre egin dio Peru Magdalenak

Azkenaldian poesian, haur literaturan nahiz pinturan dabilen Peru Magdalena durangarrak «Egia esan» nobela eman du argitara. Bilaketari, bidetari eta bidaiari gorazarre egiten die bertan,

aita-semeen arteko harreman baten testigantza-
ren bidez. Kimu semea bere aitak Argentinako
Andeetan egindako bidaia errepikatzen saiatuko
da, honek bidean idatzi zuen koaderno hartuta.



Peru Magdalena durangarrak Donostian aurkeztu zuen «Egia esan» liburua.

Juan Carlos RUIZ | ARGAKZI PRESS

BIDEA

Aitatasunaren inguruko hausnarketa egiten du liburua, baina baita bidearen eta bidaiaren aldarria ere. Andeetan galduta zeudela jaio zen «Hobeto filosofia»ren inguruan sakontzen ere jarraitzen du durangarrak.

BESTELAKO LANAK

Gotzon Garaizabal lagunarekin batera duen 2di proiektuarekin, «Kiribil» erakusketa inauguratu berri du Peru Magdalenak Bilboko Alondegian. Uztailaren 15era arte egongo da ikusgai.

da, nire bilaketa honetatik ateratako lurra. Eskertu egin gura diot balizko irakurleari lur hau bere egitea», esan eta irudikatu zuen, aurkezpenean lurrez estali baitzuen mahai gainean jarritako bere liburua. «Idatzi ahal, gure barruan bilatzen gabiltza eta bilaketa horren zuzeneko emisioa da agian literatura», erantsi zuen.

Aitaren bidaia

«Egia esan» nobelan aitatasunaren gaineko hausnarketa bat egiten du, aita-seme erlazio baten testigantza. Kimuren aitak bidaia bat egin du Mongoliara eta ez da itzuli. «Semea orduan hankamotz gelditzen da», baina aitaren lagun minak behin bera-
rekin egindako bidaia batean Kimuren aitak idatzitako koaderno bat ematen dio.

Eta koaderno horri jarraiki, bidaia bera egitera abiatuko da Kimu Argentinako Andeetan, zaldi gainean, nahiz eta bidaia bakoi-tza ezberdina den. «Bizitzan be-zala, askotan ez dugu jakiten erabakiak zergatik hartzen ditu-gun, konbinazio eta karanbola ekaitz moduko bat da. Kimuk bi-daia hori egitea erabakiko du. Era batean, bere aitarena berre-ginez, baina inoiz ezin daiteke beste bidaia bat berregin, beti egiten duzu zeurea. Eta zenbat eta urrunago joan, gero eta ba-rurago sartzen da Kimu».

Peru Magdalenak berak ere egina du duela urte batzuk an-tzeko bidaia bat, eta noski, bi-daia hartatik ere asko edaten du nobelak. «Geuk ere egin genu-ea gogoratzen dugunean fikzioa egiten dugu», ohartarazi zuen hala ere.

Xabier Mendiguren editoreak azaldu bezala, «egia esan» hiz-
ketan ari garenean erabiltzen dugun makulu bat eta, aldi bere-an, «idazlearen asmo bat da li-buru honetan; ez bakarrik egia esatea, baizik eta egia gezurra bezain eder esatea».

Arteak eta artistek presentzia handia dute narrazioan, eta kan-tuak, poemak nahiz bidaiako mapak ere tarteak izan ditu.

Ane ARRUTI | DONOSTIA

«Literatura despistea da. Idaz-
ten hasterakoan plan bat dugu
buruan, plan lanbrotu bat aka-
so, baina norabide bat bai gu-
txienez. Demagun hemendik
Baionara joatea pentsatzen du-
gula. Baina gero bide ertzeko lo-

reei begira despistatu egiten ga-
ra, harri bat dago erdian,
zuhaitz bati kimuak hasten zaiz-
kio eta, konturatzerako, Erron-
karin gaude txikito bat har-
tzen». Horrela definitu zuen
Peru Magdalenak (Durango,
1980) literatura. Eta hori egin du
bere «Egia esan» (Elkar) nobela-

rekin, bidaiari gorazarre, eta bi-
dea bera, nobela.

Izan ere, Carl Gustav Jung psi-
kiatra suitzarrarekin bat etorritz,
durangarrarentzat artea ez da
sakonera jotzen duzunean lor-
tzen duzun sakontasuna, «bai-
zik eta kanpora botatzen duzun
lurra. Kanpora botatuko lur hau

Antonio Lobo Antunesen eta Merce Rodoredaren lan bana, euskarara ekarriak

AA | DONOSTIA

Merce Rodoredaren «Ispilu hau-
tsia» eta Antonio Lobo Antune-
sen «Gauzen ordena naturala»
nobelak euskaratu eta Literatu-
ra Unibertsala sailean argitaratu
dituzte Alberdania, Erein eta
Igela argitaletxeek elkarlanean,
EIZIE itzultzaileen elkartarekin
batera.

Antonio Lobo Antunes (Lis-
boa, 1942) idazle portugaldarra-
ren nobela Inigo Roque itzuli
du. Bere esanetan, ez da eleberr
erraza. «Irakurleak ez du istorio
bakar eta lineal bat topatuko»,
eta, hori dela eta, liburua iraku-
rri aurretik hitzaurrea irakur-

tzeko gomendioa egin zuen.
Bertan gidoi moduko bat azal-
tzen du, istorioa bost liburuz
osatuta baitago eta liburu ba-
koitza kapitulu ezberdinez.

Salazar diktadorearen azken
urteetan eta ondokoetan koka-
tzen da istorioa, pertsonaia
mordoaren sartu-irtenekin, ira-
gana eta oraina nahastuz, Lisbo-
an girotua baina noizean behin
Mozambikera ere salto eginez...
«Irakurri ondoren galdetuz gero
zeri buruzko liburua den, segur
aski irakurleak ez du jakingo
erantzuten», esan zuen Roquek.
Halere, Portugalen historian
murgiltzeko liburu eta autore
benetan gomendagarria dela

adierazi zuen, «hain hurbil egon
arren», bere hitzetan Portugale-
ko oso lan gutxi itzuli direlako.

Merce Rodoredaren (Bartzelo-
na, 1908 - Girona, 1983) «Ispilu
hautsia», berriz, Antton Olanok
euskaratu du. Erbestean zela ha-
si zen Rodoreda idazten eta Ka-
talunian bukatu zuen. XIX.
mendearen bukaeratik 36ko ge-
rra ondorengo urteetara bitarte-
an kokatzen du, eta familia ba-
ten bilakaera kontatzen du hiru
belaunalditako pertsonaia ba-
koitzaren ikuspuntutik, mosai-
ko moduko bat, ispilu hautsi bat
sortuz. Sekretuekin hasi, barne
bizitzan jarraitu eta heriotzekin
amaituko du kontaketa.



EIZIEko, argitaletxeetako eta Lakuako ordezkariak, itzultzaileekin batera Donostian egindako aurkezpenean. Jagoba MANTEROLA | ARGAKZI PRESS